

Sin./Fdo.: MIREN ARANTZA MARDARAS IZARZA 2024-11-25
KIROL ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE DEPORTES

Sin./Fdo.: CARLOS SERGIO ACHOTEGUI 2024-11-25
KIROL EN ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DEPORTE

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren FORU AGINDUA, zeinaren bidez zuzeneko eta ezohiko diru laguntza ematen baitzaio KUTUNKA KULTUR ELKARTEA-ri, "Una mirada atrás" proiektutik eratorritako gastuen zati bat finantzatzeko.

ORDEN FORAL de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, por la que se concede a KUTUNKA KULTUR ELKARTEA una subvención directa y excepcional para la financiación parcial de los gastos derivados del proyecto "Una mirada atrás".

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua xedatzen du lurralde historikoei dagokiela erakunde komunek emandako kirol sustapenerako gaiak garatzea eta egipideratzea.

El artículo 7.b.6 de la Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de fomento del deporte.

Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak 2.3 artikuluan xedatzen du Euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dutela, besteak beste, honako printzipio hauek jarraituz:

La Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, señala en su artículo 2.3 que los poderes públicos vascos, en el ámbito de sus respectivas competencias, adoptarán una política dirigida a la efectividad del derecho a la actividad física y al deporte de acuerdo con, entre otros, los siguientes principios rectores:

- Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan ikerketa zientifikoa eta berrikuntza bultzatzea, haien kalitatea hobetze aldera,

- El impulso de la investigación científica y la innovación en el campo de la actividad física y del deporte para la mejora de su calidad, como





euskal kirol-sistema modernizatzeko, ezagutza transferitzeko eta hobetzeko tresna gisa.

- Kirola hainbat balio sustatzen lagun dezakeen baliabideatzat hartzea, hala nola hobekuntza pertsonala, talde-lana, elkartasuna, laguntasuna, joko garbia, tolerantzia, ekitatea edo berdintasuna.

- Natura-ingurunea jarduera fisikorako eta kirolerako behar bezala balia dadin sustatzea, ingurumenaren babesarekiko modu bateragarrian.

- Kirola kultura osatzen duen elementu gisa eta gizarte-kohesiorako elementu gisa aitortzea.

instrumentos de modernización, transferencia de conocimiento y mejora del sistema deportivo vasco.

- La consideración del deporte como un medio que puede coadyuvar al fomento de valores como la superación personal, el trabajo en equipo, la solidaridad, el compañerismo, el juego limpio, la tolerancia, la equidad o la igualdad.

- La promoción del aprovechamiento adecuado del medio natural para la actividad física y el deporte, haciéndolo compatible con la protección del medio ambiente.

- El reconocimiento del deporte como elemento integrante de la cultura y como elemento de cohesión social.

Martxoaren 30eko 2/2023 Lege bereko 4. artikulua zehaztu zuenez, "lurralde historikoetako foru-organoei, beren lurralde-eremuan, honako eskumen hauek dagozkie:

(...)

g) Laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea egoitza lurralde historikoan duten kirol-klubei eta gainerako kirol-elkarteei eta, horretarako, dagozkion dirulaguntzak ematea eta jarduera dirulaguntzaren helburuarekin bat datorrela kontrolatzea".

Kutunka Kultur Elkartea irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta kultura sustatzea eta zabaltzea du helburu, baita naturari, biodibertsitateari, mendiari, kirolei eta aire zabalean egiten diren jarduera guztiei lotutako balioak ere.

Kutunka Kultur Elkartek "Una mirada atrás" dokumentala estreinatuko du BBK Bilbao Mendifilm 2024an. Alfonso García bilbotarrak zuzendutako proiektuak helburu hauek izan ditu:

El artículo 4 de la misma Ley 2/2023, de 30 de marzo, señala asimismo que "corresponde a los órganos forales de los territorios históricos en su respectivo ámbito territorial el ejercicio de las siguientes competencias:

(...)

g) La asistencia técnica y ayuda económica a clubes y demás asociaciones deportivas domiciliadas en su territorio, concediendo al efecto las subvenciones oportunas y controlando la adecuación de su actividad a la finalidad subvencional".

Kutunka Kultur Elkartea es una asociación sin ánimo de lucro que tiene como fines promover y divulgar la cultura, así como los valores asociados a la naturaleza, la biodiversidad, la montaña, los deportes y todo tipo de actividades desarrolladas al aire libre.

Kutunka Kultur Elkartea estrenará en el BBK Bilbao Mendifilm 2024 el documental "Una mirada atrás". El proyecto, dirigido por el bilbaíno Alfonso García, ha tenido los siguientes objetivos:





- Eskalada-bideen irekitzaileek urteetan euskal mendietan egiten duten lanari balioa ematea.

- Eskaladaren alderdi ezagunenetako bat erakustea, jarduera horren atzean dagoen lanari balioa emanaz.

- Euskal Autonomia Erkidegoko eskalada-eremu sinbolikoen hastapenak, garapena eta bilakaera ezagutzea, bai eta elkarrizketatuek bideak irekitzeko eta hornitzeko orduan dituzten kezkak, sentimenduak eta eraginak ere.

Aurkeztutako proiektuaren aurrekontua 33.880,00 €-koa izango da 2024an.

- Poner en valor el trabajo que llevan haciendo durante años en las montañas vascas los aperturistas de vías de escalada.

- Mostrar una de las facetas menos conocidas de la escalada, poniendo en valor el trabajo que hay detrás de esta actividad.

- Conocer los inicios, desarrollo y evolución de las zonas de escalada más simbólicas del País Vasco, así como las inquietudes, sentimientos e influencias de las personas entrevistadas a la hora de abrir y equipar vías.

El presupuesto del proyecto presentado asciende a la cantidad de 33.880,00 € en el año 2024.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikulua arabera, salbuespen modura, diru-laguntzak zuzenean emateko aukera egongo da baldin eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak badaude.

Kutunka Kultur Elkartea-ri zuzeneko diru-laguntza emateko aukera ezin hobea da maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, proiektua berezia eta salbuespenezkoa da, eta Sail honek kudeatzen dituen ohiko deialdietako batean sartzeak bere funtsa hutsaltzea baino ez luke egingo.

Alde batetik, proiektuaren gaiagatik; izan ere, azken hamarkadetan Bizkaiko hormetan ekipatzaile/irekitzaileek modu altruistan egindako lana funtsezkoa izan da gaur egun gure lurraldean erabat hedatzen ari den

El artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, y económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

La concesión de la subvención directa a Kutunka Kultur Elkartea tiene perfecta cabida en lo dispuesto en el mencionado artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, ya que se trata de un proyecto caracterizado por su singularidad y excepcionalidad cuya inclusión en una de las convocatorias ordinarias gestionadas desde este Departamento no haría sino desvirtuar su propia esencia.

Por una parte, por la temática del proyecto, ya que la labor realizada de forma altruista por los equipadores/aperturistas de vías en las paredes vizcaínas en las últimas décadas ha sido fundamental para el desarrollo de un deporte





eskalada moduko kirol bat garatzeko. Dokumentalean islatutako istorioak elkarren artean nahasten dira pasioaz, ahaleginaz eta dedikazioaz hitz egiteko, eta, horri esker, eskalatzaile guztiek inguru ezin hobeetan egin dezakete kirol hau.

Gainera, dokumentalak gure mendien edertasuna eta paisaia-balio izugarria erakutsiko ditu, eta ikusleari bere historia aberatsean, kondairetan, tradizioetan eta ahozkotasunean parte hartzeko aukera emango dio, gaur egun gure kultura-ondarearen parte direnak. Horrela, Urkiolako Parke Naturala edo Baltzolako kobazuloak bezalako txoko enblematikoak ezagutzeko aukera izango da eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko kirolean zabaldu nahi dituen balioekin bat datozen balioak dituen jarduera fisikoa sustatzen du.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren helburua da natura-ingurunea jarduera fisikorako aprobetxatzea, betiere ingurumena babestearekin bateragarria bada. Ildo horretan, proiektuak gure mendietako hormak eskaladarako leku egoki bihurtzen gehien lagundu duen kolektiboetako bat aintzatesten du.

Bestalde, erakunde onuradunaren izaeragatik, irabazi-asmorik gabeko erakundea denez, nabarmen zailtzen baitu Foru Sail honek sustatutako deialdietan sartzea.

Azaldutako guztiagatik, eta “Una mirada atrás” proiektuak Bizkaiko eskaladan daukan garrantziaz jabetuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak beharrezkotzat jotzen du proposatutako proiektua partez finantzatzeko dirulaguntza hau zuzenean ematea.

que actualmente está en total expansión en nuestro territorio como la escalada. Las historias plasmadas en el documental se entrelazan para hablar de pasión, esfuerzo y dedicación, gracias al cual todo el colectivo de escaladores puede practicar este deporte en entornos inmejorables.

Además, el documental mostrará la belleza y el enorme valor paisajístico de nuestras montañas y hará participe al público de su rica historia, de leyendas, tradiciones y oralidad compartida por generaciones y que hoy forman parte de nuestro patrimonio cultural. Así, se podrán conocer rincones tan emblemáticos como el Parque Natural de Urkiola o las cuevas de Baltzola, además de promocionar una actividad física con valores que concuerdan con los que la Diputación Foral de Bizkaia quiere difundir en el deporte Vizcaíno.

A su vez, la Diputación Foral de Bizkaia tiene como objetivo la promoción del aprovechamiento del medio natural para la actividad física haciéndolo compatible con la protección del medio ambiente. En este sentido, el proyecto reconoce a uno de los colectivos que más ha ayudado en convertir las paredes de nuestras montañas en lugares idóneos para la escalada.

Por otra parte, por la naturaleza de la entidad beneficiaria, que al ser una entidad sin ánimo de lucro ve dificultada de modo evidente su encaje en las distintas convocatorias promovidas desde este Departamento Foral.

En base a todo lo expuesto, y siendo conscientes de la trascendencia que para la escalada vizcaína tiene el proyecto “Una mirada atrás”, desde el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, se considera necesaria la concesión de forma directa de esta subvención para la financiación parcial del proyecto propuesto.





Era berean, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egiten jarraitzea, urte asko baitaramatza horretan lanean. Horretarako, foru agindu honek genero-ikuspegia txertatzen du, bai hura lantzerakoan, bai aplikatzerakoan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala.

Bestalde, entitateak adierazten du ez dagoela sartuta foru diru-laguntzen onuradun izatea eragozten duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan daude ezarrita), eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

2024ko ekitaldiko aurrekontuko dagokion G/0403/341110/45100_2008/0111 partidan, diru-laguntza hau emateak eragingo duen gastuari aurre egiteko beharrezkoa den kontsignazioa dago.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12.2 artikulua Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Araudi Orokorra onartzen duen 169/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriari dagokionez foru diputatuari emandako eskumenaren arabera ematen da diru-laguntza foru agindu bidez. Dekretu horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren organoek diru-laguntzak ematearen ondoriozko gastuak xedatzeko dituzten eskumenen mugak zehazten ditu.

Asimismo, para lograr el progreso económico y social, esta Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible seguir avanzando en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres, en la que lleva trabajando numerosos años. A tal efecto, esta orden foral incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, conforme se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Por su parte, la entidad manifiesta no encontrarse incurso en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12.2 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En la partida presupuestaria correspondiente, G/0403/341110/45100_2008/0111 del presupuesto del ejercicio 2024, existe la necesaria consignación para hacer frente al gasto que representa la concesión de la presente subvención.

La subvención se otorga mediante orden foral en virtud de la competencia atribuida a la diputada foral por el artículo 12.2 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, en relación con la disposición adicional segunda del Decreto Foral 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, que determina los límites competenciales por razón de la cuantía de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia para





la disposición de gastos derivados de la concesión de subvenciones y ayudas.

Beraz, kontuan harturik zer eskumen ematen dizkidaten hala Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak nola Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, eta haiek bat datozen gainerako xedapenek, honako hau

Por ello, y a tenor de las facultades conferidas en la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskara, Cultura y Deporte, y demás disposiciones concordantes,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

LEHENENGOA.- HAMAR MILA EUROko (10.000,00€) zenbateko jakineko dirulaguntza zuzena ematea Kutunka Kultur Elkartearen (IFZ G-56693047), "Una mirada atrás" proiektutik eratorritako gastuen zati bat finantzatzeko.

PRIMERO.- Conceder una subvención directa por importe cierto de DIEZ MIL EUROS (10.000,00€) a Kutunka Kultur Elkarte, con NIF G-56693047, para la financiación parcial de los gastos derivados del proyecto "Una mirada atrás".

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikulua ezartzen duenaren babesean ematen da dirulaguntza hau, justifikatuta baitago deialdi publiko batean sartzeko zailtasuna, foru agindu honen azalpenezko atalean adierazten den moduan.

Esta subvención se otorga al amparo de lo dispuesto en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, al quedar justificado, tal como queda recogido en la parte expositiva de esta orden foral la dificultad de su inclusión en una convocatoria pública.

Dirulaguntza hori 2024ko ekitaldiaren aurrekontuko G/0403/341110/45100_2008/0111 partidaren kargura ordainduko da.

Esta subvención se imputará a la partida G/0403/341110/45100_2008/0111 del presupuesto del ejercicio 2024.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza beste edozein administrazio edo erakunderen (publikoa nahiz pribatua, nazionala, Europar Batasuneko nahiz nazioartekoa) helburu

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la presente subvención foral será compatible con otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras Administraciones, Entes





bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin bateragarria izango da, baina, hori gertatuz gero, dagokion onuradunak zuzenbidez onargarria den edozein bide erabiliz dirulaguntza publiko horren berri eman beharko lioke honako hau eman duen erakundeari ahalik eta arinen.

Tributuak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenen. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntza, sarrera edo baliabideekin batera (berezko finantzaketa barne), ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

BIGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua ezartzen duen dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptua betez emango dira dirulaguntza hauek. Ondorio horietarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundutako gastuen kostua ezin izango da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

HIRUGARRENA.- Foru agindu hau jakinarazi eta hamar egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da eta Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko Kirol Zerbitzua izapideak egiten hasiko da Ogasun eta Finantzen Foru Sailarekin, dirulaguntza ordainketa bakar baten abonatzeko; horretarako, ez zaio ezein

Públicos o Privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin que ello obste la obligación de la respectiva beneficiaria de comunicar por cualquier medio probatorio aceptable en derecho tal subvención pública, de producirse, a la entidad concedente de la presente a la mayor brevedad posible.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

SEGUNDO.- La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los bienes subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

TERCERO.- Si en el plazo de diez días hábiles tras la notificación de la presente orden foral la entidad beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la subvención, se entenderá que ésta queda aceptada, y el Servicio de Deportes del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte procederá a tramitar su abono en un solo pago ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello





bermerik eskatuko onuradunari, zergatik eta ez delako arriskurik aurreikusten hartutako betebeharrak ez betetzeko.

Gastuaz baliatu, betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatu egingo da entitate onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekioei dagokienez, eta dirua itzultzeko ebazpenen baten ondorioz zorduna ez dela.

Eginiko egiaztapenen ondorioz erakunde onuradunak aipaturiko betebeharrak ez dituela betetzen antzemanaz gero, hamar (10) eguneko epean egoera erregularizatzeko eskatuko zaio, eta, hori egin ezean, emandako dirulaguntzarako eskubidea galdu egingo duela adieraziko zaio administrazio-ebazpen baten bitartez.

LAUGARRENA.- Foru agindu honen bidez emandako diru-laguntzaren onuraduna den erakundeak honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Diru-laguntza jaso duen proiektua egitea.
- b) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak proiektuaren justifikazioa egingo du justifikazio-kontua aurkeztuz; justifikazio-kontu hori 2025eko martxoaren 31ra arte (egun hori barne) aurkeztu beharko du Kirol Zerbitzuko bulegoetan (Bilboko Errekalde zumarkalea, 30 - 1. solairua), aurkeztu beharko du, eta informazio hau jaso beharko du:

1. Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.

garantía alguna a la beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas.

Previo a la disposición del gasto, al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la beneficiaria incumple cualquiera de tales obligaciones, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida, previa la correspondiente resolución administrativa.

CUARTO.- La entidad beneficiaria de la subvención concedida por la presente orden foral se compromete a:

- a) Realizar el proyecto subvencionado.
- b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación de las actividades realizadas por parte de la beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el día 31 de marzo de 2025 (incluido), en las oficinas del Servicio de Deportes (sitas en Bilbao, c/ Alameda Recalde, 30 - 1º), de una cuenta justificativa que deberá contener la información que se indica a continuación:

1. Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.





2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomiko bat, honako alderdi hauek jasotzen dituen:

a) Eginiko jardueri egotzitako gastu eta sarreraren egoera-orria. Bete beharreko gastu eta diru-sarreraren egoerak 1. inprimakian proposatutako ereduaren egiturari jarraitu beharko dio.

b) Aurreko a) atalean adierazitako gastuen egoera osatzen duen kontzeptu bakoitzarentzat, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta bertan adieraziko dira: hartzekodunaren identifikazioa, dokumentuaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, 2.a), b), c) eta d) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta. Justifikazioa egiteko epearen muga-egunean ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

c) Diru-sarreraren egoera osatzen duen partida bakoitzarentzat, aurreko a) atalean adierazitako diru-sarreraren (diru-laguntzak nahiz bestelako diru-sarrerak) zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta, bertan, zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira, 3.a) eta b) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta.

d) Erakunde eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorten bat, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak aurreko c) letran berariaz adierazitakoak direla.

e) Adieraziko da zein irizpide erabili diren aurreko b) letran adierazten diren kostu orokorrak edota zeharkako kostuak banatzeko.

f) Onuradunak egiaztagiria aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que contendrá:

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del modelo que se propone en el formulario 1.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 2.a), b), c) y d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 3.a) y b).

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) anterior.

f) La beneficiaria debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las





dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen berezko araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira (Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauko 29.3 artikulua), salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada. Hornitzailearen aukeraketa txosten bat justifikatu beharko da, proposamen ekonomiko onena aukeratu ez denean.

g) Fakturen eta ordainketak egiaztatzen dituzten dokumentuen aurkezpena.

h) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

BOSGARRENA.- Nolanahi ere, foru dirulaguntza honen erakunde onuradunak derrigorrez bete beharko du Bizkaiko Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen lege araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoa.

Era berean, dirulaguntza publiko hau jasoz gero, erakunde onuradunak aipaturiko foru arauaren 33. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoa bete beharko du.

Azpik kontratazeko, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen erregimen juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan jasotakoa bete beharko da. Onartutako azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren % 90 izango da.

SEIGARRENA.- Erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri emateko konpromisoa

ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público para el contrato menor (art. 29.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones), salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud. Deberá justificar en una memoria la elección del proveedor cuando la misma no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) Aportación de las facturas y de los documentos que soporten los pagos.

h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

